BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2959

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 3koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresari ingurumen-baimen bateratua emateko dena, Iruña Okako (Araba) udalerrian aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta mekanizazioko jarduera gauzatu dezan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 26an, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Iruña Okako (Araba) udalerrian aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta mekanizaziorako. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak aurkeztu ziren:

● Proiektu teknikoa (2006ko abendua): memoria eta eranskinak (tartean laburpen ez-teknikoa dela).

● Instalazioak Iruña Okako hirigintza-plangintzarekin duen bateragarritasunari buruzko txosten-eskaera, 2005eko azaroaren 2koa.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak, besteak beste, 1999ko uztailaren 8ko jarduerarako baimena zuen burdinarik gabeko materiala injekzioz galdatzeko. Halaber, enpresa sustatzaileak baimen hauek zituen: hondakin arriskutsuak ekoizteko baimena, 2002ko urriaren 16koa; hondakin geldoen ekoizleen erregistroko inskripzioa, 2001eko azaroaren 11koa; hondakin-urak ibaira isurtzeko baimena, 2001eko azaroaren 20koa, eta atmosfera kutsa dezakeen instalazioaren ziurtagiria, 2004ko martxoaren 31koa, hondakin, ur eta isuri atmosferikoen arloan indarrean den araudian xedatutakoari jarraiki.

2007ko urtarrilaren 25ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Zehazki, Iruña Okako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Ebroko Ur Konfederazioari egin zitzaien kontsulta.

2007ko martxoaren 30ean eta irailaren 25ean, Ingurumen Organoak agiri gehigarriak gehitzeko eskatu zion sustatzaileari.

Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen, 2007ko abenduaren 2an, eta auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko irailaren 23an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Iruña Okako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Ingurumeneko baimen bateratuaren espedientearen ebazpenerako agiriak osatze aldera, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak berriz ere agiri osagarriak eskatu zituen, eta espedientea 2008ko abenduaren 1ean osatu zen.

2008ko abenduaren 15ean, txostena eskatu zitzaion Ebroko Ur Konfederazioari, eta 2009ko otsailaren 20an igorri zen.

2009ko apirilaren 29an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresaren esku utzi zen, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era beran, indarrean dagoen araudiaren araberako administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi izan dira. Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak ekoizteko baimena; jabari publiko hidraulikora isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadurari aurrea hartu eta zuzentzeari dagozkionak. Era berean, beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek egindako txostenak aurkeztu dituzte, espedientean parte hartzen dutela agerian uzteko.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen

bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Iruña Okako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri egokienak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Bereziki Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukia hartu da kontuan: 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry, eta 2001eko abenduko Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems. Gainera, sektorean aplikatzekoak diren araudiei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da bereziki apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua, apirilaren 24ko 11/1997 Legea, ontzi eta ontzi-hondakinei buruzkoa, garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duena.

Espedienteko txostenak aztertu eta proiektuaren osotasunaren ingurumen ebaluazioa egin ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak 2009ko apirilaren 21ean emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Iruña Okako udalerriko (Arabako lurralde historikoa) errepide nagusiaren 340,5 km-an eta IFK: A-01007764 duen Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresari ingurumeneko baimen bateratua ematea Iruña Okako (Araba) udalerrian aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta mekanizaziorako.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b) kategorian dago, «Metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, galdaketako moldekatzea) galdatzeko instalazioak, berun eta kadmiorako 4 tona edo gainerako metal guztietarako 20 tona baino gehiago urtzeko ahalmena dutenak, eguneko».

Enpresa herriguneko industrialde batean dago, eta 30.000 m^2-ko azalera okupatzen du guztira.

Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresaren urteko ekoizpena 75.000 t automobil-pieza eta 12.000 t erradiadorekoa da.

Prozesua lehengaia (lingoteak eta prozesuko bertako itzulerak) urtzeko labeetan urtuz hasten da. Horretarako, urtzeko 3 labe daude (Marconi, Insertec Fado 4000/2500 eta Insertec Fado 3000/2000).

Urtutako materiala banaketa-upeletan isurtzen da eta injekzio-zeluletan banatzen da. Bertan, piezak moldekatu egiten dira, altzairuz egindako moldeak erabiliz. Injektatze-prozesua 12 injektoreren bidez egiten da.

Piezak hoztutakoan, bizarrak kentzen zaizkie prentsa mekanikoetan. Pieza batzuk mekanizatu egiten dira ondoren (txirbil-harroketa).

Bidali aurretik, piezek azal-akaberako prozesu bat igarotzen dute, bibrarazte- eta granailatze-prozesuen bidez.

Azken produktuak kontrolatu eta paketatu egiten dira, ondoren bezeroari bidaltzeko.

Instalazio eta ekipoek jarduteko erabilitako energia-iturriak energia elektrikoa, gas naturala (galdatze-prozesuan eta prozesu osagarrietan) eta gasolioa (barne-garraiorako) dira.

Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak ekoizte-prozesuan sortutako isuri atmosferiko guztiak bildu eta bideratzen ditu 17 foku zarraturen bidez. Isuri horiek galdatze- eta injektatze-etapetakoak dira. Gainera, isuri barreiatuak sortzen dira moldeak ikuzteko prozesuan.

Bestetik, bada hondakin-urak isurtzeko puntu bat. Ur horiek desmoldekatzekoak, bibrarazteko makinetakoak, moldeak garbitu ondorengoak, zerbitzuetakoak, hozteko zirkuituetakoak eta euri-urak dira. Ur guztiak, araztu ondoren, Zadorra ibaira isurtzen dira puntu bakar batetik.

Jarduera garatzean hondakin arriskutsuak zein hondakin ez-arriskutsuak sortzen dira. Horrela, hondakin arriskutsuak sortzen dira injektatze-prozesuan (olio hidrauliko erabilezina, olio-iragazkiak), olioak dekantatzean (lohi oliotsuak), araztegian (iragazketa-harea agortuak), piezen akaberan (granaila-hautsa), zerbitzu medikoan (hondakin sanitarioak) eta zerbitzu orokorretan (olio hidraulikoa duten trapuak eta kotoia, bateriak, merkuriozko pilak, fluoreszenteak, metalezko bidoiak, bateria alkalinoak/gatzezkoak, olioak dituen sepiolita, nikel/kadmiozko bateriak, plastikozko ontziak, erabiltzen ez diren ekipo informatikoak). Hondakin ez-arriskutsuak zenbait etapatan sortzen dira: galdaketan eta injekzioan (aluminio-aparrak, arragoa hautsiak, hondar ferrosoak), mekanizazioan (aluminio-txirbilak), arazketan (lehorketa-zelaien hondar solidoak), tailer mekanikoan (hondar ferrosoak), biltegiratzean (zurak eta paketatze-hondarrak, papera eta kartoia), eta administrazioan (papera eta kartoia, informatikako kontsumigarri erabiliak).

Proiektuak, 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREF agirian, eta 2001eko abenduko «Reference Document on the application of Best Available Techniques to Industrial Cooling Systems» BREF agirian adierazitakoaren arabera, teknika erabilgarri onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak hartzen ditu barne: txatarra estalita biltegiratzea, urtzeko labeen isurien xurgapena, moldeetako injekzioan kanpaiak erabiltzea eta ingurumena kudeatzeko sistema ezartzea (eta ziurtagiria), ur-bereizgailu baten bidez ur-kontsumoa murriztea, legionella kontrolatu eta desinfektatzea, hozte-zirkuitu itxi baten bidez uretarako isuriak murriztea, etab.

Bigarrena.– Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak Iruña Okako udalerrian sustatutako aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta mekanizazioa ustiatzeko eta ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzan jakinaraziko du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta mekanizaziorako instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta ondorengo mekanizaziorako instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Erregistro-liburuan duen izena	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	1000471-01	Urtzeko 5. labea	12,5	1,17	B	517.028	4.740.360
2	1000471-02	Urtzeko 7. labea	12,5	1,17	B	517.028	4.740.346
3	1000471-03	Urtzeko 8. labea	12,5	1,17	B	517.035	4.740.351
4	1000471-04	37-38. injektoreak	11	0,70	C	517.000	4.740.445
5	1000471-05	28-51-53-54-55-91-72. injektoreak	11	0,8	C	516.995	4.740.439
6	1000471-06	31-34-39. injektoreak	10	0,67	C	516.991	4.740.395
7	1000471-07	71. injektorea	6	0,45	C	517.043	4.740.389
8	1000471-08	43. injektorea	10	0,639	C	516.999	4.470.399
9	1000471-09	44. injektorea	6	0,589	C	517.022	4.740.351
10	1000471-10	45. injektorea	6	0,589	C	517.005	4.740.346
11	1000471-11	46. injektorea	6	0,559	C	517.020	4.740.351
12	1000471-12	81. injektorea	10,20	0,44	C	517.049	4.740.375
13	1000471-13	61. injektorea	10,10	0,50	C	516.987	4.740.352
14	1000471-14	52. injektorea	9,95	0,43	C	517.036	4.740.398
15	1000471-15	33. injektorea	10,7	0,44	C	517.057	4.740.363
16	1000471-16	47. injektorea	10,56	0,59	C	517.014	4.740.332
17	1000471-17	82-93. injektoreak	12,2	0,59	C	516.995	4.740.325

Isuri barreiatuak dituzte «Moldeak ikuztea» prozesuan.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean ez dira ondorengo isuri atmosferikoen muga-balioak gainditu:

Foku zk.	Isurtze-fokuaren izena	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Urtzeko 5. labea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		NO_x	300 ppm
		CO	500 ppm
2	Urtzeko 7. labea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		NO_x	300 ppm
		CO	500 ppm
3	Urtzeko 8. labea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
		NO_x	300 ppm
		CO	500 ppm
4	37-38. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
5	28-51-53-54-55-91-72. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
6	31-34-39. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
7	71. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
8	43. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
9	44. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
10	45. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
11	46. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
12	81. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
13	61. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
14	52. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
15	33. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
16	47. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3
17	82-93. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

«Moldeak ikuztea» prozesuetako isuri barreiatuak zarratuta dauden justifikatu beharko da, eta instalaziotik kanpora isurtzen diren. Hala badagokio, isurtze-foku hori erregularizatu egin beharko da.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (Industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.2.– Ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Burdinarik gabeko metalak galdatzea.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1 – 2 – 27.54.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industria-urak	Injekzioa desmoldekatzeko urak	Zadorra ibaia	Zaborra arroa	II	X: 516.915 Y: 4.740.422
	Industria-urak	Piezak bibrarazteko urak				
	Industria-urak	Piezak ikuzteko urak				
	Ur sanitarioak	Langileen zerbitzu eta dutxetako urak				
	Euri-urak	Azaleko eurien jariatze-urak				
	Hozteko urak	Hozte-zirkuituaren (berria) purgak eta garbiketa				
	Hozteko urak	Hozte-zirkuituaren (zaharra) purgak eta garbiketa				
	Industria-urak	Erremintak presiozko urez garbitzea				

B.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) F-1 Desmoldekatzeko urak.

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	1,2
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	21,6
Urteko balioa (m^3/urte)	4.750

b) F-2 Bibrarazteko urak.

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	2,7
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	21,6
Urteko balioa (m^3/urte)	2.200

c) F– 3: Garbiketako urak.

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	0,2
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	3,2
Urteko balioa (m^3/urte)	690

d) F-4 Ur sanitarioak.

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	2
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	31,2
Urteko balioa (m^3/urte)	6.800

e) F-5 Euri-urak.

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	21
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	30
Urteko balioa (m^3/urte)	11.000

f) F-6 Hozte berriaren purga eta garbiketetako urak (sareko ura erabiltzea).

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	Ezezaguna
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	Ezezaguna
Urteko balioa (m^3/urte)	Purgak: 220 Garbiketak: 40

g) F-7 Hozte berriaren purga eta garbiketetako urak (ibaiko ura erabiltzea).

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	Ezezaguna
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	Ezezaguna
Urteko balioa (m^3/urte)	Purgak: ez du Garbiketak: 10

h) F-8 Erremintak garbitzeko urak (presiozko ura).

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	0,1
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	1,7
Urteko balioa (m^3/urte)	365

Isurketen emariak:

Eguneko gehienezko balioa (m^3/h)	7,5
Eguneko batez besteko balioa (m^3/h)	80
Urteko balioa (m^3/urte)	26.000

Hala ere, isurketen emari horiei euri-ur garbiei dagozkienak kendu behar litzaizkieke, hots, 11.000 m^3/urte.

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ibilgurako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira soil-soilik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Urteko gehienezko bolumena, gehienez	15.000 m^3
Eguneko bolumena, gehienez	50 m^3
pH-a hauen artean	5,5-9,5
Gai esekiak, gehienez	35 mg/l
OEB_5, gehienez	25 mg/l
OEK, gehienez	125 mg/l
Olio eta koipeak, gehienez	5 mg/l
Detergenteak, gehienez	2 mg/l
Al, gehienez	1 mg/l
Fe, gehienez	2 mg/l
Kadmioa, gehienez	0,2 mg/l
Merkurioa, gehienez	0,05 mg/l
Zn, gehienez	3 mg/l
Kromo III, gehienez	2 mg/l
Kromo IV, gehienez	0,2 mg/l
Cu, gehienez	0,1 mg/l
Pb, gehienez	0,05 mg/l
As, gehienez	0,01 mg/l
Ni, gehienez	0,1 mg/l
AOX-ak	0,5 mg/l

Tenperatura: ubidearen tenperatura ezin da 1,5 ºC baino gehiago areagotu.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen horrek ez du baldintza honetan berariaz adierazitakoak ez diren bestelako substantzien isurketa onartzen, batez ere maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen diren gai arriskutsuak. Errege Dekretu horren bidez, Urei buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legearen atariko titulua eta I., IV., V., VI. eta VIII. tituluak garatzen dituen jabari publiko eta hidraulikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen da.

Hozte-zirkuituak husteko arau egokien bidez errespetatu eta bermatu behar den protokoloa ondorengoa izango da:

1.– Husteko gutxieneko denbora: 72 ordu.

2.– Hondar-kloro askea erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3.– Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioak bi tratamendu-lerro ditu. Batek injekzioz moldekatzeko eremuko (makina-lerroa) isurketa biltzen du, eta besteak bibrarazteko makinen ura (bibroetako ura).

Bibroetako urak tratamendu fisiko eta kimikoa igarotzen du, koagulatzailea eta malutatzailea gehituta, eta ondoren dekantazioa. Ondoriozko lohiak lehorketa-zelai batera igarotzen dira eta gaineko ura bigarren dekantazio batera, eta ondoren biologikoki tratatzen da, isuri aurretik.

Piezak desmoldekatu eta ikuzteko urak tratamendu fisiko eta kimikoa igarotzen du, olio-flotazio bidez, ondoren koagulatzailea eta malutatzailea gehituta, eta ondoren dekantazio bat. Ondoriozko lohiak lehorketa-zelaira joaten dira, eta ura tratamendu biologikora.

Tratamendu biologikora ur sanitarioak (240 langile) ere gehitzen dira.

Injekzio-makinetako hozte-dorreetako urak eta mekanizaziokoak ur-andeletara birzirkulatzen dira, eta hozte-dorreetako purgak eta garbiketak lohi oliotsuen andel batera eramaten dira, ondoriozko hondakina ondoren kudeatzeko, eta uren tratamendu biologikora gehitzeko.

Euri-urak uren tratamendu biologikoaren irteerara gehitzen dira gero, eta elkarrekin isurtzen dira Zadorra ibaira.

Gauzatzeko dauden jarduketak:

● Tratamendu biologikoko efluentea kontrolatzeko puntu bat jarri beharko da, jarduerako euri-urak isurketa-kolektorera gehitu aurretik.

● Glikolak erabili ordez HFDU ester sintetikoak erabili:

○ Ebazpen honen ondoren kontatzen hasita 6 hileko epean, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak azterlan bat aurkeztuko du, glikolak erabiltzetik HFDU ester sintetikoak erabiltzera aldatzean bi injekzio-makinarekin egindako probetan lortutako emaitzak biltzen dituena, OEK eta OEB_5 kontzentrazioak murriztearren.

○ Ebazpen honen ondoren kontatzen hasita urtebeteko epean, glikolak erabili ordez HFDU ester sintetikoen erabilera erabat ezarrita egon beharko da, eta ezarpen horretan lortutako emaitzak igorri beharko dira. Lortutako isurketako efluenteak ez ditu baimenean xedatutako mugak gainditu behar.

● Ezarritako mugak ez lortzekotan, andel estanko bat izan beharko da hozteko purgei eta garbiketei dagozkien urak biltzeko eta ondoren kudeatzeko, horiek azken isurketara gehitu gabe.

● Egokitze-plan bat aurkeztu beharko da, gorago azaldutako puntuen burutze-epe zehatzak barne hartzen dituena.

● Era berean, enpresak arazteko gehienezko ahalmena aurkeztu beharko du (m^3/h), eta biztanle baliokideak (isurketa biodegradagarrietarako) Adierazpeneko 4. formularioa.

Hala eta guztiz ere, hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Etorkizunean isurketa hori udal-izaera edo izaera publikoa duen saneamendu-sare orokor bati lotzea bideragarria baldin bada, sare horri konektatu beharko zaio.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

B.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurien Kontrol-kanona = $V \times P_u$.

$P_u = P_b \times K_m$.

$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

V = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_b = Oinarrizko prezioa m^3-ko isurketaren izaeraren arabera.

K_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

Isurketa-puntua: desmoldekatzeko industria-urak, bibrarazteko makinetako industria-urak, garbigailuetako industria-urak, moldeak garbitzeko industria-urak, zerbitzuetako erabilera sanitarioko urak eta hozteko zirkuituetako industria-urak.

V: Bolumena:	V = 15.000 m^3 / urte
P_b: Hondakin-ura: Industriala	P_b = 0,03005 €/m^3
K_2: 1. mota substantzia arriskutsuekin	K_2 = 1,28
K_3: Industriala tratamendu egokirik gabea	K_3 = 2,5
K_4: Kategoria-eremua: I	K_4 = 1,25

Isurien kontrol-kanona = 15.000 m^3/urte × 0,03005 €/m^3 × 4 = 1.803 €/urte.

Ebroko Ur Konfederazioak isurien kontrol-kanonaren likidazioa egin eta jakinaraziko du dagokion urteko ekitaldia bukatu orduko.

Isurien kontrol-kanona ez da lotuta egongo saneamendu– eta arazte-lanak finantzatzeko autonomia-erkidegoek edo udalek ezar ditzaketen kanonekin edo zergekin.

Zenbateko hori ez da aldatuko baimen honetan adierazitako isurtzeko baldintzak edo isurien kontrol-kanonaren kalkulua osatzen duten faktoreetako bat aldatzen ez den artean.

Urte natural bakoitza amaitu ondoren, titularrari urte horri dagokion likidazioa bidaliko zaio.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia– eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Iruña Okako Udalean.

B.3.1.– Hondakin Arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Injekzioa».

○ 1. hondakina: «Granaila hautsa».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//S25//C24//H3a//A222//B3250.

– EHZ: 120116.

– Urtean sortutako kantitatea: 13.084 kg.

Aluminiozko aleazio-piezak granailatzean sortzen da. Altzairu herdoilgaitzaren eta aluminioaren hautsak dira. Hondakin hori identifikatzeko balezta-itxiturako metalezko bidoietan biltzen da eta horretarako berariazko eremuan biltegiratzen da.

● 2. prozesua: «Hondakin uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Lohi oliotsuak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/21.

– Hondakinaren kodea: Q9//D9//L9//C51//H5//A222//B0006.

– EHZ: 190810.

– Urtean sortutako kantitatea: 63.800 kg.

Olio– eta koipe-bereizgailuan sortzen da. Lohi oliotsuak dira. Hondakin hori identifikatzeko andelean bildu eta biltegiratzen da.

○ 2. hondakina: «Iragazketa harea agortuak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q9//D5//S23//C51//H5//A222//B0006.

– EHZ: 190211.

– Urtean sortutako kantitatea: 52.360 kg.

Olio– eta koipe-bereizgailuko iragazketa-hareak (buztinak) birjartzean sortzen da Hondakin hori identifikatzeko andelean bildu eta biltegiratzen da.

● 3. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Olio hidrauliko erabilezina».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//R9//L8//C51//H5/6//A222//B0019.

– EHZ: 130110.

– Urtean sortutako kantitatea: 30.280 kg.

Makina eta instalazioetan olioa birjartzeko eragiketetan sortzen da. Olio hidrauliko erabiliak dira. Hondakin hori identifikatzeko andelean bildu eta biltegiratzen da.

○ 2. hondakina: «Bateriak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C18/23/H8//A222//B0019.

– EHZ: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 692 kg.

Berun azidozko bateriak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Hondakin hori identifikatzeko kaxan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 3. hondakina: «NI-CD-zko pilak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/3.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C5/11/24//H8//A222//B0019.

– EHZ: 160602.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kg.

Metagailu agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Nikela eta/edo kadmioa bezalako metalak dituen elektrolito alkalinoa dute. Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da hondakin-biltegian.

○ 4. hondakina: «Merkuriozko pilak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C10/16/22//H6//A222//B0019.

– EHZ: 160603.

– Urtean sortutako kantitatea: 200 kg.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Merkurioa, zilarra eta metal alkalinoak dituzten pila erabiliak dira. Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da hondakin-biltegian.

○ 5. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6//A222//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 25 kg.

Lanparak birjartzeko eragiketetan sortzen da. Merkurioa duten lanpara erabiliak dira. Hondakin hori identifikatzeko edukiontzian biltzen da, hondakin-biltegian.

○ 6. hondakina: «Hondakin sanitarioak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/6.

– Hondakinaren kodea: Q16//D14//S1//C35//H9//A222//B0019.

– EHZ: 180103.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 kg.

Zerbitzu medikoko azpiprozesuan sortzen da. Hondakin ebakitzaile eta zorrotzak dira. Edukiontzi hermetikoan biltzen dira botikinean. Edukiontzi horretatik zuzenean erretiratzen da kudeatzaile baimenduari entregatzeko.

○ 7. hondakina: «Olioa duten trapuak eta kotoia».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/7.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S34//C51//H5//A222//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 150 kg.

Xurgatzaileak eta ehunkiak jasotzean sortzen da. Olioz bustitako trapuak eta kotoia dira. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian biltzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 8. hondakina: «Olioaz busitako sepiolita».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/8.

– Hondakinaren kodea: Q5//D13//S34//C51//H5//A222//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 4.000 kg.

Olio-ihesak eta –jarioak xurgatzaileekin biltzean sortzen da. Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Bete ondoren, hondakin-biltegira eramaten da.

○ 9. hondakina: «Gai arriskutsuak izan dituzten metalezko bidoi hutsak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/9.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C51//H14//A222//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.241 kg.

Ontzi hutsak biltzean sortzen dira. Batik bat olioak dituzten bidoiak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan biltzen da hondakin-biltegian.

○ 10. hondakina: «Olio iragazki erabiliak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/10.

– Hondakinaren kodea: Q6//D15//S35//C51//H5//A222//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.000 kg.

Makina eta instalazioetan iragazteko materiala birjartzean sortzen da. Olio hidraulikoekin bustitako ehunkizko iragazkiak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako metalezko bidoian biltzen da, horretarako berariazko eremuan.

○ 11. hondakina: «Gai arriskutsuak eduki dituzten plastikozko ontzi hutsak».

– Identifikazioa: A01007764/0100003775/3/11.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C51//H5//A222//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 unitate.

Ontzi hutsak biltzean sortzen da. Hidrokarburoak edo bestelako gai arriskutsuak eduki dituzten plastikozko bidoiak dira. Hondakin horrentzat identifikatutako lekuan biltzen da hondakinen biltegian.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak.

k) Irailaren 29ko 259/1998 Dekretu horri jarraituz, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresa behartuta egongo da olio-hondakinen ezaugarri fisiko-kimikoak egiaztatzera (aipatutako dekretuak arautzen du olio horren kudeaketa), azken kudeatzaile baimenduari trata dezan entregatu aurretik. Aipatu dekretuaren 20. artikuluan ezarritakoaren arabera, egiaztapena ez da nahitaezkoa izango, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan baimendutako transferentzia-estazio batera eramanez gero. Kasu horretan, transferentzia-estazio horren titularrak bere gain hartuko du betebeharra, azken kudeatzaileari erabilitako olioa bidali aurretik.

l) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

m) Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituzten edo izan ditzaketen gailuak dituen bitartean, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan eta hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak.

n) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

o) Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

p) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

q) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urtean behin.

r) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), o) eta p) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

s) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (kg/urte)
Informatikako kontsumigarri erabiliak	080313/080318	Administrazioa	Noizean behin
Aluminio-aparrak	100316	Galdaketa eta injekzioa	800.000
Arragoa hautsiak	100307	Injekzioa	Noizean behin
Aluminiozko iragazki hautsiak	100399	Galdaketa	Noizean behin
Papera eta kartoia	150101	Administrazioa eta biltegia	12.000
Burdina-hondarrak	160107	Tailer mekanikoa eta injekzioa	Noizean behin
Zura eta paketatze-hondarrak	170201	Biltegia	Noizean behin
Aluminio-txirbilak	170402	Mekanizazioa	Noizean behin

Sustatzaileak aurkeztutako lehorketa-zelaien hondar solidoak hondakina onartzeko agiria iragazketa-harea agortuak hondakinari dagokio. Hondakin hori arriskutsu gisa identifikatu da, eta ez dago argi hondakin bera ote den. Horri dagokionez, sustatzaileak kontzeptu hori argitu behar du.

Sustatzaileak hondakin hauen zenbatetsitako ekoizpena adierazi behar du: informatikako kontsumigarri erabiliak, arragoa hautsiak, aluminiozko iragazki hautsiak, burdina-hondarrak, zura eta paketatze-hondarrak eta aluminio-txirbilak.

a) «Aluminio Aparrak» hondakinaren kasuan, hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz hustu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakina arriskutsua dela ezartzen bada, ebazpen honetako B.3.1 atalean jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakinak zabortegietan utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d) eta e) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak lurzoruari egindako eragina murrizteko jarraibide hauek hartu beharko ditu kontuan, honelako neurriak ezarriz:

● Isurketek, jarioek edo ihesek kaltetu ditzaketen lur zatiko gainazal guztiak zolatuak eta irazgaiztuak egongo dira.

● Isurketak, jarioak edo ihesak eragozteko moduan biltegiratuko dira lehengaiak, erregaiak eta produktuak.

Era horretan, ontzi mugikorretan zein finkotan biltegiratutako produktu kimiko likido guztiek (batez ere gai eta prestakin arriskutsuak) eta biltegiratutako erregai likidoek jarioak biltzeko sistema izango dute.

Produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudiaren mendeko biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Petrolio-instalazioei buruz indarrean dagoen araudiaren mendeko biltegiratzeek araudi horretan ezarritako babes-neurriak beteko dituzte. Egiaztapen horiek egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

● Hondakinak ebazpen honetan adierazitako jarraibideen arabera biltegiratuko dira.

● Hondakin metalikoak barruan edo, hala ezin bada, estalkipean biltegiratuko dira, lixibiatuak lurzorura eta uretara ahalik eta gutxien heltzeko.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Erregistro-liburuko izena	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1000471-01	Urtzeko 5. labea	Guztizko partikulak (GP), NO_x eta CO	Hiru urtean behin
2	1000471-02	Urtzeko 7. labea	Guztizko partikulak (GP), NO_x eta CO	Hiru urtean behin
3	1000471-03	Urtzeko 8. labea	Guztizko partikulak (GP), NO_x eta CO	Hiru urtean behin
4	1000471-04	37-38. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
5	1000471-05	28-51-53-54-55-91-72. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
6	1000471-06	31-34-39. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
7	1000471-07	71. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
8	1000471-08	43. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
9	1000471-09	44. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
10	1000471-10	45. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
11	1000471-11	46. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
12	1000471-12	81. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
13	1000471-13	61. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
14	1000471-14	52. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
15	1000471-15	33. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
16	1000471-16	47. injektorea	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin
17	1000471-17	82-93. injektoreak	Guztizko partikulak (GP)	Bost urtean behin
			Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	Bost urtean behin

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskapenak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Parametroak	Analisiaren maiztasuna
Urteko gehienezko bolumena, gehienez	Urtekoa
Eguneko bolumena, gehienez	Egunerokoa
pH-a hauen artean	Egunerokoa
Gai esekiak, gehienez	Hilerokoa
OEB_5, gehienez	Hilerokoa
OEK, gehienez	Hilerokoa
Olio eta koipeak, gehienez	Hilerokoa
Detergenteak, gehienez	Hilerokoa
Al, gehienez	Hilerokoa
Fe, gehienez	Hilerokoa
Kadmioa, gehienez	Hilerokoa
Merkurioa, gehienez	Hilerokoa
Zn, gehienez	Hilerokoa
Kromo III, gehienez	Hilerokoa
Kromo IV, gehienez	Hilerokoa
Cu, gehienez	Hilerokoa
Pb, gehienez	Hilerokoa
As, gehienez	Hilerokoa
Ni, gehienez	Hilerokoa
AOX-ak	Hilerokoa

Baimenaren titularrak kolektoreak eta arazketa-instalazioak funtzionamendu-egoera egokian mantendu beharko ditu. Horrela, betebehar horietarako pertsona bat izendatu beharko du eta instalazioak zaindu eta funtzionatzeko arau zorrotzak eta beharrezko neurriak emango dizkio.

Prozesuko uren isurketaren emaria neurtzeko sistema bat eduki behar da, emariaren uneko balioa eta metatua edozein unetan jakiteko.

Baimenaren titularrak arazketa-instalazioen funtzionamendua eta isurketen kalitatea eta kantitatea maiz kontrolatu beharko ditu. Informazio hori Ingurumen Sailburuordetzak eta Ebroko Ur Konfederazioak aztertzeko eskuragarri egongo da, eta beharrezko egiaztapen eta analisiak egin ahal izango dituzte horiek. Gutxienez isurtzeko mugen baldintzan zehaztutako parametroak analizatuko dira, adierazitako maiztasunarekin.

Isurketen kontrolaren emaitza analitiko guztiak erakunde laguntzaile batek egiaztatuko ditu, edo zuzenean erakunde horrek egingo ditu kontrolak eskatutako laginketa eta analisi guztiak.

Arazketa-instalazioetako efluenteen irteera bakoitzean kutxeta bat jarriko da eta bertan egingo da isurketaren laginketa. Horrenbestez, isurketaren laginak hartzeko eta emaria neurtzeko baldintza egokiak beteko ditu kutxetak. Kanpotik sartzeko aukera erraztuko da, jardueraren instalaziora sartzeko beharrik izan gabe.

Aurreko baldintzetan ezarritako kontrolez gain, Arroko Erakundeak egoki deritzon analisi eta ikuskapenak egin ahalko ditu isurketaren ezaugarriak aztertu eta, hala badagokio, kontrol horien baliozkotasuna alderatzeko.

Lan horiek erakunde laguntzaileek zuzenean, edo horien bitartez egin ahalko dira.

Obrak eta instalazioak Ebroko Ur Konfederazioak ikuskatu eta zainduko ditu une oro, eta onuradunaren esku geratuko dira kontzeptu horiek sortutako ordainsari eta gastuak, indarrean diren xedapenekin bat etorriz. Arazketa-instalazioen jarduna zuzena ez bada, arazketa eraginkor bat lortzeko zuzenketa aproposak ezarri ahalko dira.

Titularrak aldizkako txosten bat igorriko du Ingurumen Organora, datu hauek azaltzen dituena:

● Hiru hilero: isurketaren adierazpen analitikoa, efluentearen emariari eta konposizioari dagokionez (hiruhilekoan egindako efluenteen kontrol-analisi guztiak barne egongo dira).

● Urtero: tratamendu-sistemaren ustiapeneko gorabeheren eta isurketaren hobekuntzan lortutako emaitzen adierazpena.

Ingurumeneko baimen bateratua berritzeko dagokion legerian aurreikusitako aurrerapenarekin, titularrak hondakin-uren isurketaren azterlan eguneratu bat igorriko du autonomia-erkidegoko erakundera, behar bada neurri zuzentzaileak hobetzeko proposamena gehituta.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Aluminio injektatua	t	Aluminio injektatua	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● Al-2521 aleazioa ● Al-2630 aleazioa ● Al-2640 aleazioa ● silafont ● prozesuko itzulerak	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● Al-2521 aleazioa ● Al-2630 aleazioa ● Al-2640 aleazioa ● silafont ● prozesuko itzulerak	t
			Lehengai-kontsumoa/aluminio injektatua guztira	t/t
	Desmoldekatzaile-kontsumoa	t	Desmoldekatzaile-kontsumoa / Aluminio injektatua	t/t
	Pistoi-argizarien kontsumoa	t	Pistoi-argizarien kontsumoa / Aluminio injektatua	t/t
	Ur glikoldunaren kontsumoa	t	Ur glikoldunaren kontsumoa / / Aluminio injektatua	t/t
	Desinkrustatzaile-kontsumoa	t	Desinkrustatzaile-kontsumoa / Aluminio injektatua	t/t
	Zepa-kentzailearen kontsumoa	t	Zepa-kentzailearen kontsumoa / Aluminio injektatua	t/t
	Monoetilenglikol-kontsumoa	t	Monoetilenglikol-kontsumoa / Aluminio injektatua	t/t
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	Kwh	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	Elektrizitate-kontsumoa	Kwh	Elektrizitate-kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	Energia-kontsumoa	Kwh	Berariazko energia (energia kontsumitua)/Aluminio injektatua)	Kwh/t
Isuri atmosferikoak	Partikula solidoen isuria (max., min, batez bestekoa, lagin kopurua) / foku guztietarako	mg/Nm^3	Partikula solidoen isuria	Kg
	Partikula-isurien guztizkoa	kg	Partikula-isurien guztizkoa	kg
			Partikula-isuria / Aluminio injektatua	Kg/t
	Karbono organikoaren guztizko (KOG) isuria / 3. fokurako	mg/Nm^3	Karbono organikoaren guztizko (KOG) isuria / Aluminio injektatua / 3. fokurako	Kg/t
	KOG gisa isuritako olioen guztizkoa / 4-17. fokuetarako	mg/Nm^3	KOG gisa isuritako olioen guztizkoa / Aluminio injektatua/ 4-17. fokuetarako	Kg/t
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3
			Ur-kontsumoa / Aluminio injektatua	m^3/t
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/urtea	Ekoscan/Urte eta/edo ISO14001/Urte eta/edo EMAS/ Urte	Bai/Ez Zein/urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Bidalketa urtero egingo da, martxoaren 30a baino lehen beti, eta ingurumena zaintzeko programako emaitzekin batera, txosten bat aurkeztuko da. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, baita prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak ere. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.540 epigrafea «Burdinarik gabeko bestelako metalen galdaketa»), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburu horretan kutsadura atmosferikoa prebenitzeko eta zuzentzeko sistemen (arazketa, minimizazioa, etab.) egoera ona bermatzeko neurriak jaso beharko dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, erregaiak, gai arriskutsuak eta fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

h) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

j) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

k) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

l) Arazte-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka aterako dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

m) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen eremuetan.

n) Arazketa-instalazioek lohien tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, hori tratatzeko.

o) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

Titularrak isurketaren larrialdi-egoeretarako jarduketa eta neurrien berariazko plan bat izango du.

Horrelako planik izan ezean, titularrak larrialdi-egoeretarako arau orokorrei helduko die.

p) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, baldintza hauek azpimarratu behar dira:

● Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

● Berme-neurri gisa, pH-aren eta redox-aren zunda bikoitza eduki behar da arazte-prozesuko puntu kritikoetan, eta beharrezko puntuetan izaten diren desbideratzeei dagozkien alarmak jarri.

● Ebazpen honetan deskribatutako jarduerez gain, gasolioa biltegiratzeko eta manipulatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, ustekabeko haustura, gainezkaldi eta abarren ondorioz gerta daitezkeen isuriei eusteko.

● Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

● Gainera, nahitaez kontratu bat sinatzea eskatzen da araztegiaren mantentze-lanetarako eta prozesuaren, errendimendu eta arazketaren, ekipo elektromekaniko eta sentsoreen funtzionamendu egokia ikuskatzeko.

● Enpresa espezializatu batek egindako araztegiaren mantentze-lanen protokolo edo eskuliburu bat eduki behar da derrigorrez, eta bertan, hauek finkatuko dira: ekipo elektromekanikoen mantentze-lanak, arbastuen garbiketak, gehiegizko solido, lohi eta abarren purgak, erreaktore biologikoko lohien kontzentrazioaren aldizkako jarraipena barne, horiek behar bezala purgatu eta erretiratzeko.

● Hondakin-ura ezingo da «by-pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

q) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

r) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

● Gertakari mota.

● Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

Arazketa-instalazioetako ustekabeko isurketa edo ezohiko gertaera berehala jakinaraziko zaio Ebroko Ur Konfederazioari faxez edo telefonoz hasieran, eta idatziz ahalik eta arinen, eta aldi berean hori epe laburrenean zuzentzeko neurriak hartuko dira.

s) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Erregelamenduko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurien gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) Apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritza eskudunari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek (EE 1907/2006 Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu dira horiek) giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.3 (Hala badagokio, «Moldeak ikuztea» prozesuko isuri barreiatuak zarratuta daudela justifikatzea); B.2.4 (Kontrol-puntua kolektorera gehitu aurretik, glikolak erabiltzetik HFDU ester sintetikoak erabiltzera aldatzean egindako proben emaitzen azterketak, andel estankoa (behar bada), egokitze-plana, arazteko gehienezko ahalmena eta biztanle baliokideak (4. formularioa), berariazko ekipamendua aire-konpresoreetan); B.3.1.f) (Sortutako hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak); B.3.1.p) (Hondakin arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.3.2 («Lehorketa-zelaien hondar solidoak» hondakina argitzea) (hondakin hauen sortutako kantitatea: informatikako kontsumigarri erabiliak, arragoa hautsiak, aluminiozko iragazki hautsiak, burdina-hondarrak, zura eta paketatze-hondarrak eta aluminio-txirbilak); B.3.2.d) (Hondakin ez-arriskutsuak onartzeko agiriak); B.3.2.f) (Hondakin ez-arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.4 (Lurzoruaren kutsadura murrizteko neurriak); C.1 (Isuri atmosferikoen kontrola, behar bada); C.1 d) (Isuri atmosferikoak erregistratzeko eredua); C.2 (Isurketaren emaria neurtzeko sistema, kontrol erregularra, laginketa-kutxeta, aldizkako txostena), (Isurketen baldintzak betetzearen ziurtagiria, zaintzeko planean aurreikusitako lehen analisiak aurkeztuta); C.4 (Zarata neurtzeko proposamena); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren testu bategina); D.1 (Isuri eta hondakinen zenbatespena eta kudeatu eta tratatzeko proposamena); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.d) (Mantentze-lanen erregistroa); D.3.e) (Azalera guztiak iragazgaiztea); D.3 h) (Larrialdi-kasuetarako material-zerrenda); D.3.i) (Kubetak husteko protokoloa); D.3.o) (Isurketaren larrialdi-egoeretarako berariazko plana); D.3.p) (Hidrokarburoen berariazko materialen zerrenda, pH-aren eta redox-aren zunda bikoitza, gasolio-instalazioa isolatzea, araztegia ustiatzeko protokoloa, mantentze-lanen erregistroa, prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua, ustiatu eta zaintzeko eskuliburua, mantentze-lanetarako kontratua, mantentze-lanen protokoloa); D.3.s) (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Atal honetako baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan jasotako ibilgurako isurketen baldintzei dagokienez, Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 261. artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoak, eta baldintza horiek hainbat aldiz ez betetzea berrikusi, bertan behera utzi eta indargabetzeko kausa izango dira.

Seigarrena.– Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresak ebazpen honen xede den aluminiozko aleazio-piezen injekzio eta mekanizazioko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fundiciones Inyectadas Alavesas, S.A. enpresari, Iruña Okako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 3a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.